

OÑATIKO EMAKUMION KONTSEILUA	
Bilera zk.: 1	Data: 2023-02-16
	Ordua: 17:30-18:00
	Tokia: Osoko bilkura aretoa
Gai ordena <ul style="list-style-type: none">• Bilerari hasiera ematea• Oñatiko Emakumion kontseiluaren osaera• Lan tresnen balidazioa• Galdera eta eskaerak	

1. Bilerari hasiera ematea

Hamabi kontseilukideetatik hamaika bertaratu dira bilerara. Bertan dira, kontseiluaren lehendakaria eta idazkari lanak egingo dituen arduradun teknikoa. Kontseilukideen gehiengoarekin, beraz, hasiera eman zaio bilerari.

2. Oñatiko Emakumion kontseiluaren osaera

Bederatzi herritarren eskaerak jaso dira kontseilu kide izateko, eta guztiak onartu dira alkate dekretuz 2023ko otsailaren 10ean.

Hala, Oñatiko Emakumion kontseiluaren osaera azaldu du lehendakariak:

- Kontseilukide izateko eskaera aurkeztu duten 9 herritarrak
- Alderdi politiko bakoitzeko ordezkari bana: Anik Zubizarreta Arturo eta Marijo Etxegoien Arzuaga
- Berdintasun batzordeburua lehendakari gisa: Izaro Elorza Arregui

Kontseiluan parte hartuko dute berdintasun teknikariak eta partaidetza teknikariak, ahotsarekin baina bozkarik gabe, erraztaile eta idazkari tekniko lanetan.

3. Oñatiko Emakumion kontseiluaren proposamenen jarraipenerako tresnaren onarpena

Oñatiko emakumion kontseiluak egin ditzakeen proposamenen jarraipenerako tresna ahobatez onartu da.

4. Galdera eta eskaerak

Ez dagoenez bestelako galdera edo eskaerarik, bilera amaitutzat ematen da 18:00etan.

Hurrengo bilera sei hilabete barru izango da, eta deialdia web orriaren bidez eta ohiko komunikazio kanalen bidez jakinaraziko da.